

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## 697

*EBAZPENA, 2017ko urtarrilaren 24koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa.*

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Zuzendaritza Nagusian hutsik geratu da goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat (kodea: 520010; dotazioa: 122). Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2. artikulua arabera, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena bidali eta gero, zuzendaritza honek erabaki du iragar-tzea izendapen askearen sistemaren bidez beteko dela eranskinean aipatzen den lanpostua, eta horretarako beteko direla honako

#### OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioek, eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena.– Eskabideak.

1.– Izangaiek Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidean, datu pertsonalak eta egun duten destinoa adierazi beharko dituzte.

2.– Izangaiek, eskaerarekin batera, curriculum vitae aurkeztu beharko dute, eta bertan honako hauek adierazi:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazioan eta, halakorik bada, enpresa pribatuetan betetako lanpostuak.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzak, eta izangaiek egoki iritzitako gainerako merezimenduak.

Eskabidearekin batera, eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta adierazitako merezimen-duak dauzkatela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte izangaiek. Dena den, horiek Langileen Erregistroan badaude, ez dituzte aurkeztu beharko. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako bestelako agiriak ere aurkez ditzakete.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da deialdia, gehienez ere eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamu-netik aurrera hilabeteko epean. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpena.

Lanpostua lortzen duen pertsonak ezarritako epearen barruan hartu beharko du jabetzan lanpostua eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beronen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2017ko urtarrilaren 24a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,  
ALBERTO ALONSO MARTÍN.

## ERANSKINA

Deialdiko lanpostua: goi-kargudunaren idazkaria.

Kodea: 520010.

Dotazioa: 122.

Kidegoak: A05EU/A07EU.

Lanpostu-mailako osagarria: 18.

Berariazko osagarria: VI-A.

Tokia: Osalaneko Zuzendaritza Nagusia.

Udalerria: Barakaldo – Bizkaia.

Hizkuntza-eskakizuna: 2.

Derrigortasun-data: 1997-12.